

# Net Hurbil

PELLO ZUBIRIA

## “El Eternauta”: komikia, literatura eta izua Argentinan

Duela 30 urte, 1978an, militar argentinarrek hil zuten Héctor Germán Oesterheld idazle eta komikigilea. Bere lau alaba gazteak ere desagerrarazi zituzten betiko, bi biloba moduan.

Oesterheldek *El Eternauta* komikian Hego Amerikako diktaturak marraztuak zituen... gertatu aurretik.

OESTERHELDARREN AKABERAK IZUA eragiten du irakurri hutsarekin. 1976 eta 1978 artean Argentinan diktadura antolatu zuten militarrek bahitu, torturatu eta hil egin zituzten Héctor Germán Oesterheld (HGO) idazlea –*El Eternauta* klasikoa eta beste askoren egilea– eta 18-24 urteko lau alaba gazteak, Beatriz, Diana, Estela eta Marina. Suihi bat eta biloba txiki bi ere bai. Elsa emaztea baizik ez zuten utzi bizirik, emakume bati ezarri dakiokkeen torturarik latzena bizitarako erantsita.

“HGO da XX. mendeko abentura sortzaile bikainenetakoa. Heroiaren profila aldatu zuen. *El Eternauta*, bere sorkuntza nagusia, iragarpenez betetako fikzio zirrargarria, muga politikoak eta literatur generoak zeharkatzen ditu eta klasiko bihurtu da gero eta irakurle gehiagorentzako. Komikien obra homerotar honek gizatasunari egiten dio galde”. Hori idatzi zuen Manuel Rivas idazle galiziarrek *El País* egunkariaren igandetako gehigarrian plazazatutako *El desaparecido HGO* artikuluan. Geroztik idazlana webgune ugarian irakur daiteke, beste titulu honekin: *Un caso estremecedor de aniquilamiento de una familia de gente progresista, de artistas*.

1919an sortua, HGOk aita judu alemana zuen eta ama euskal jatorrikoa, Puyol abizenekoa. Geologia ikasi ostean, lehenbiziko lanak alor horretan egin zituen, lur eta mineralen analisietan. Baina idazteari lotu zitzaion gazte-

tatik. Geologia utzita ere, beti jarraituko zuen munduko aldizkari zientifiko aurreratuenak irakurtzen.

Hasieran, haurrentzako asko idatzi zuen. Ia beti seudonimoz, hemen ere duela gutxi arte ohitura izan den moduan. Anaia Jorgerekin laster sartu zen liburugintzan, argitaletxe propioa antolatuta. Komikietan murgildu zen, gidoigintzan, eta hogeita hamar urtetan 150 obratan hartu zuen parte, ehun marrazkilarri baino gehiagorekin, tartean Hugo Prattekin.

Argentinan komikigintzak urrezko urteak bizi zituen, eta HGOk maite zuen formula: “Goiko eta beheko kulturen dilema gezurtia hautsi nahi zuen. Ez zuen aurreiritzi elitistarik. Jendearengana hurbildu nahi zuen eta hori bateragarri uste zuen kalitatearekin. Horra *El Eternauta*ren lezioa: abangoardiako obra jendeari iritsi zitzaion, abentura handia eta literatura bikaina”.

*El Eternauta* izenez bi obra daude bataiatuta, biak ere HGOren gidoia dutenak. Lehena 1957koa da, Francisco Solano López-ek marraztua. Etorkizuneko Argentinak jasan behar omen duen inbasioaren fikziozko kronika distopikoa da *El Eternauta*. Denboran edo eternitatean barrena aurrera eta atzera dabilen Juan Salvo *eternauta* gidoigileari kontatuko dio berak etorkizunean ikusi duen katastrofea.

Zientzia fikzioaren osagai klasikoak jositako obra. Elurte batek iragar-

terroon albokoak bi afixa dira, Héctor Germán Oesterhelderen heriotzaren 30. urteurrenaren eta *El Eternauta*ren 50.aren ospakizunerako prestatuak. Komiki klasikoaren protagonista ageri da bietan. Behekoan Argentina zuritu duen elurte bitxia ikusi daiteke, diktaduraren etorreraren metafora. 1960 inguruko argazkian marrazkilarriaren familia ageri da: Héctor, Elsa Sánchez emaztea eta lau alabak, Estela, Diana, Beatriz eta Marina. Sendiak urte zoriontsuak bizi zituen, baina urak gero eta arreago zetozen Argentinan. Ama ez beste bostak Montoneros taldera hurbilduko ziren. 1976an militarrek *Proceso de Reorganización Nacional* bataiatutako diktadura ezarri zuten. Milaka gehiagorekin batera suntsitu zituzten Oesterheldar familiako aita-alabak.

tzen du urrutiko alienigenen etorrera. Klase ezberdinetako soldadu eta armak usatzen dituzte atzerritarrek Argentinako herritarrek zanpatzeko. Hauetako batzuek erresistentziatzako gerra antolatuko dute, baina behin eta berriro eroriko dira inbasoreek ezarritako zeladetan. Soldadu etsaiak, gainera, ikusiko da bertakoak direla, inbasore ezezagunek esklabutzat hartu, itxuraldatu eta anai-arrebak txirtxilatzeraz igorri dituzten izaki errobotizatuak.

Komikiaren barruan erakutsiko du bere burua gidoigileak. Bukaera aldean, 1963an gertatu behar omen duena 1957an kontatu dion *eternauta* ez du gehiago ezagutuko idazlea: denboran atzera egitean memoria galdu du. Azkenean, informazio guztia jaso duen idazlea bihurtu da *Eternauta*.

### Izuaren gordeleketan preso

1976an publikatu *El Eternauta II*. Lehenaren jarraipena zen, hura bezala Solanok iruditzen ipinia. Baina bitartean, asko aldatuak ziren gauzak. Bigarren liburukian Argentinako eguneroko biziezinari buruzko loturak askoz nabarmenagoak dira, erreferentzia politikoak gardenagoak.

Oso bestela bizi zen HGO ere 1976an. Montonero mugimenduan sartua, atzetik zebilzkion poliziari eta militarrek. Diote testuak batzuetan telefonoz diktatzen zituela karriketako kabinetatik. Argitaletxera azaltzekotan



Beste behin biloba eraman zioten zulora. Martin izeneko hiru urteko honekin ordu luzez hizketan egoten utzi zioten. Egun hartan bertan hilak zizkioten gurasoak. HGOren beste bi bilobek desagertuta bukatu zuten, Argentina osoan 800 gehiagorekin gertatu bezala, baina Martin amatxiren etxean entregatu zuen militarren batek... eta gaur bizirik da.

Iaz eta aurten Héctor Germán Oesterhelden heriotzaren 30. urteurrena eta *El Eternauta*ren 50.a ospatu dituzte Argentinan, hitzaldi, erakusketa, birrargitalpen eta abarrekin. Horien aitzakian bildu ditu Manuel Rivasek lekukotasun bat baino gehiago. Inportanteena, alargunarena. Elsa Sánchez oraindik harrিতuta bizi da senarra eta lau alaben galerari gaina hartu eta irau duela. Paradisua ezagutu zuten elkarrekin, Argentinak inoiz eduki duen belaunaldirik onena, bizimodu ona, sexualitatearen askapena, kulturaren loraldia, artisten arteko zoriona... Eta infernua ondoren.

Berrikitan, Elsa alargunari desagertuta egondako emakume bat hurbildu omen zitzaion, medikua bera. Escuela Mecánica de la Armada famatuan zegoelarik atxilo, hango hiltzaile handienetakoa zen Alfredo Astiz –*Angel de la muerte*– ofizialak bulegora deitu eta mahaiko kajoitik aterata liburu bat eman omen zion. “Hartu eta irakur ezan, Argentinako libururik onena dun”. *El Eternauta* zen. Munstroak ondo ezagutzen zuen. ■

[www.argia.com/nethurbil.php](http://www.argia.com/nethurbil.php) helbidean, gai honi buruzko informazio gehiago eta Interneteko loturak.



desorduetan egiten zuela. Hark zientzia fikzioan asmatutako munstroak haragi eginak ziren.

1976ko ekainean Beatriz alaba harrapatu zuten militarrek. 19 urteko neska gorpua izango zen ama Elsa Sánchezek berreskuratu ahal izango zuen bakarra. Uztailean harrapatu zioten Diana, 23 urte eta haurdun. 1977ko apirilean Héctor. Azaroan Marina, 18, eta abenduan Estela, 24. Urte haietan eman zuen epaia Ibérico Saint Jean jeneralak: “*Primero mataremos a los subversivos; después a sus simpatizantes, y por último a los indiferentes*”.

Manuel Rivasek kontatu ditu HGOren desagertualdiko –horrela deitu beharko zaio, legezko atxiloketarik ez zenez izan– xehetasun surrealistikak. Zeren eta Sheraton hotelean beste

askorekin batera desagertuta zeukaten denboran lana ere eman baitzioten militarrek. Aurretik, beste obren artean Che Guevararen biografia komikirako egokitua zen HGO, arrakasta handia lortuz gainera. Amerikanoek enbaxadara deitu omen zioten gero, Kennedyrekin gauza bera egin zezan, baina Oesterheldek uko egin. Evita Peronena idatzia zuen, baina ez zen argitaratu. Militarrek, preso zeukatela, Juan San Martinen biografia egiten jarri omen zuten. Umore beltza.

Gainerako 30.000 desagertuak bezala Oesterheld ere torturatu egin zuten. Denetan torturarik gogorrena harekin preso egon eta bizirik ateratzeko zoria izan zuen batek kontatu du: lau alaba hilen gorpuei eginiko argazkiak erakutsi omen zizkioten.



Produkturik onenak,  
Zinkunegi Optikan

Aukerarik zabalena  
betaurreko graduatu,  
ukipen-lente,  
audiofono eta  
eguzkitako  
betaurrekoetan.

ZINKUNEGI  
OPTIKA

Hernani kalea - 20004 DONOSTIA  
e-posta: zinkunegi@euskalnet.net  
TEL.: 943 420 624

K A L I T A T E A